

Liburutegia

Pilar Iparragirre



Zalditeria Gorria

Isaak Babel

ALBERDANIA-ELKAR

202 orrialde

11,30 euro

Isaak Babelen maisulana

Berrogeita sei urterekin erail zuten Isaak Babel idazlea Stalinen indarrak 1940an, botere sobietarren alde agertu zen arren. Ordura arte baina, makina bat lan egindakoa zen. Ukrainako familia judu bateko semea, errusieraz gain, yiddish-a eta frantsesa hitz egiten zituen. 1917ko iraultza gertatu aurretik, hainbat ipuin argitaratu zituen Maxim Gorkiren *Letopis* aldizkarian. Garaiko agintari tsaristek moral-galgarritzat jo zituzten ordea, eta Babelek idazteari utzi zion bolada batez, kazetari gisa eta Armada Gorrian jarduteko. Sobietar Armadak 1920an egotzi zituen poloniarrek Ukrainatik, eta garai

hartako oroitzapenetan oinarritua dago Olga Martinez de Marigortak eta Roberto Serranok euskaratu duten Babelen *Zalditeria Gorria*. y

Ipuinak, familiak solas egin dezan

Desclee argitaletxeak kaleratutako *Solas Egiteko ipuinak* saileko liburuen helburua 5 urtetik gorako seme-alabak dituzten familiei Umeen Eskubideei buruzko Kontentzioa hurbiltzea da. *Oso familia normala* deritzan kontakizunean, Josu eta Mikel mutikoen eta bere gurasoen elkarbizitzaren berri ematen da. Familian ez dio inork etxeko lanei muzin egiten. Aitak denentzako gosaria prestatzen du, eta amak bazkaria; edo alderantziz. Eta mutiko biek harrikoa egiten dute, alditan batek, alditan besteak. Etxe hartan nork bere ohea atontzen du, arropa zikinak jaso eta logela txukundu.

Eta norbaiti betebeharra *ahazten* bazaio, ondo asko daki isun bat ordaindu beharko duela. Normala da. Horregatik gelditzen dira harri eta zur Sandra lagunak harenean etxeko lan guztiak bere amak egiten dituela aitortzen dienean. y



Oso familia normala

Gladys Herrera Patiño

DESCLEE

38 orrialde

10,80 euro



Bizikidetza eta gatazkak ikastetxeetan

Batzuen artean

ARARTEKO

551 orrialde

EAEko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan egindako inkesta

Neska-mutilei pertsona guztiak errespetatzea eta indarkeriarik gabe bizikide izaten irakastea da hezkuntzaren oinarritzko helburuetako bat. Helburu hori lortzeko bidean Arartekoak, Kataluniako Sindic de Greuges erakundearekin batera, eskolako bizikidetzaren eta indarkeriaren gaia aztertzea erabaki zuen. Ikerketaren xedea, besteak beste, honakoa zen: ea ikastetxe eremuko jokabide gatazkatsuak benetan gorakada izan duten, edota gai honekiko dagoen *gizarte kezkak* beste arrazoirik duen. Horretarako, 2005-2006 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako 80 ikastetxetan ikerketa egin zuen. Azterlan haren ondorioak eta Arartekoari iradoki zizkieten gomendioak dira orain plaza-
ratzen direnak. y

36ko Gerra Andoainen

1936ko Gerra Zibila galtzaileen eremuan bizitzea egokitu zitzaizkien ahotsak eta oroimenak ahanzturaren txokora baztertu nahi izan zituzten hala frankismoak nola demokrazia formalak. Horixe eragozteko asmoz osatu zen Andoainen *Lurpean gordetako historia* oroitzu taldea, eta erakunde horri esker ikusi berri du argia Xabier Lasa Bergarak osatu duen *Andoain: Askatasunaren alde eta frankismoaren aurka borrokatu zutenak* oroitzu idazlanak. Izenburu aurre gisa honako oharpena darma liburuak: *Ahozko historia: oroimenean lokartutako ahotsa*. *Gerra Zibilaren (1936-1939) eragina Gipuzkoako herri bateko bizitza sozialean*. Andoaindaren ahoko iturriak eta agiri idatziak uztartu ditu egileak 36ko Gerra Zibilak herrian izandako eraginaren gainean xehetasunez jositako ikuspegia eskaintzerako orduan. y



Ahozko historia: oroimenean lokartutako ahotsa

Xabier Lasa

OROITUZ-ANDOAIN

652 orrialde



Bap!! Bai, ederki

Joxi Ubeda

PAPER HOTSAK

162 orrialde

11,40 euro

Euskal hardcorearen talde aitzindaria

Hemezortzi-hemeretzi urterekin punkak eta hardcoreak erabat harrapatu zituen belaunaldikoak dira Drake, Eneko, Mikel eta Jomes, Bap!! taldea osatu zuten lau gazte andoaindarrak. 80ko hamarkadaren erdialdea zen. Bap!!-ekoek kantu laburrak joz, abiada bizian, sistemaren kakak azaleratzen zituzten, oihuka. Euskal Herrian hardcorea jo eta beste hainbat doinuarekin nahastu zituen lehenengo taldeetako izan zen Andoaingoa, eta berehala egin zen ezaguna euskal lurretan ez ezik Katalunian, Frantzia, Italian eta Alemanian ere, Joxi Ubedak *Bap!! Bai, ederki* liburuan gogoratzen

duenaren arabera. 1996an eman zioten amaiera talde hari, baina lau gazteek elkarrekin jotzen jarraitu dute gaur arte. y

Maite dituenei laguntzeagatik asko nekatutako alaba

Jon Suarezek idatzi eta Jokin Mitxelenak marraztu duten kontakizun samur honen narratzaileak amatxo sendagilea eta aitatzko pizzeria bateko sukaldaria ditu. Amatzok gaitxoetara zaharrak kendu eta berriak jartzen pasatzen du eguna, aitatzok etengabe pizzei gazta, olibak, antxoak eta bestelakoak jartzen dizkien bitartean. Eta jakina, porru eginda etxeratzen dira beti biak. Orduan, txikiak atseden hartzen laguntzen die, behar duten guztia maitasun osoz eskainiz. Baina, noski, ahalegin horrek ere nekatzen du bat! y

Loa, loa

Jon Suarez

GERO

28 orrialde / 6,50 euro



hasier etxeberria

«Fikziozko jaun erreala da nire nobelako Cosme Iturrino»

Zer intentziorekin idatzi duzu *Iturrino Handia*?

Normalean nik jakiten dut nobela batek zer ibilbide izango duen eta nora iritsi nahi duan. *Iturrino Handia*rekin ez da hori kasua Gehiago hartu nuen jolas askatzaile bat bezala. Nekaturik nengoen idaztetik, azkeneko nobelatik, eta konbentziturik ez nuela sekula gehiago beste nobelarik idatziko. Gainera, ez neukan motibaziorik ere. Baina halako batean, blog batean jolasean hasi eta *Iturrino Handia* aurkitu nuen. Eta berak kontatu zidan bere bizitza. Ez dut, beraz, nik meritu handiegirik. Baina egia da ni nobelei zentzu utilitarista bat ematen aritzen naitzela, niretzat, nire bizitzarako, eta batzuk izan ditut sendabide –adibidez, aurreneko nobela, *Mugetan*, neukan gaitz zehatz batetik sendatzeko erabili nuen—. Hau berriro idazkuntzarekin adiskidetzeko erabili nuen. Eta benetan lagundu dit, idazten ari bainaiz hurrengo nobela bat ere. Nola lagundu dizu?

Pentsatu nuen idazkuntzarekin adiskidetzeko gauza bat egin behar nuela: guztiz aske ibili. Aurreko nobeletan-eta, neure buruari ezartzen nion mundua esplikatu beharra, edo esperimentalki jokatu beharra... Hemen ez nion inolako zerarik jarri. Horregatik dio sarrerako esaldiak: *Dakiguna egiten dugu, zer egiten dugun jakin baino lehen*.

Azpimarratuko zenituzkeen nobelako berezitasunak?

Fikziozko jaun erreala da Cosme Iturrino. Gidatzen nauen jaun hori jarri dut hizketan, eta galbahe jarri diot: nire belarria. Ahozkotasanak agintzen ditu narrazioa eta nobela barnean dauden mugimenduak ere, ez dut inongo akotaziorik sartu.



ELI GOROSTEGI

Hasier Etxeberriaren azken eleberria

Hasier Etxeberriaren azken nobelako protagonistak eta eskatutako edari guztia ordaintzearen truk isil-isilik protagonistak kontatzen dizkionak entzuten dituen kazetari batek hiri inguruko auzo bateko Villanubla tabernan eza-

gutzen dute elkar. Nobelako kontalari bakarra da Cosme Iturrino, *Iturrino Handia* eta magilaria dugu, pertsona bat hiru zatitan egiten duen kaxaren asmatzailea. Amarrua eta trepetarena bai-zik ez omen zen Cosme Iturrinok gobernatzen zuen lurraldearen legea. Behintzat halaxe dio gizonak bere ibilerak aletzen dituenan. Asko du azaltzeko 36ko gerra hasi zen egunean, mugako marran jaiotzea egokitu zitzaion horrek. Baina Diccinoren zirkuan Anne eta Belle bi burudun emakumearekin bizitako une zoriontsuak gogoratzea gogoko badu, ez da hala gertatzen munstro itxuragabeak



Iturrino Handia

Hasier Etxeberria

SUSA

126 orrialde

13 euro

ikusgai zituen zirku hura itxi izanaren arrazoia, eta are gutxiago Anne eta Bellek hartu zuten erabaki lazarria oroitzen. Nolanahi ere, aurrera egingo du, Frantziako trenetan txartel-zulatzailerik gisa hasi eta Orson Welles, haren emazte Oja, John Huston eta beste asko ezagutzeko parada eta haiekin egindako filma agertuz; edota Josetxo tabernariarekin lotzen duena aitortuz. n

egileari galdetza